


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/11/05) Hurrengo saioa: 2019/11/19	Sukaldaritza tailerra	Jakinarazpena prestatu eta etxeetara banatu da	
	Jubilatuen eguna	Bazkaltzera joan ezin dutenen zerranda egin da. Herritar hauei herriko produktuen lotea etxera eramango zaielarik.	Loteak prestatu eta banatu

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/11/12) Hurrengo saioa: (2019/11/26)	Kontsumobide tailerrak	Azaroaren 21ean eta abenduaren 12an egingo diren tailerren jakinarazpena prestatu da eta banaketa antolatu da	
	Euskaraldia	2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da 2. Euskaraldia, baina ariketa sozialaren aurkezpena 2019an hasiko denez, Itsason abenduaren 6an egingo da. Herriko plazan izango da ekitaldia (taldeei eta entitateei garrantzia emango zaie eta bizipenak eta desioak partekatuko dira). Bertso afariarekin amaituko dugu (Alaia Martin eta Sustrai Colina etorriko dira) Afaria hainbat herriko produktuez osatutakoa izango da.	Herriko Produktuez arduratzen den taldearekin eta Ostatuko Manurekin koordinatu (menua, prezioa,...)
	Euskara sustatzeko ekintzak eta diru-laguntzak	Gaiari buruz inguruko Udaletako web orrietan dagoena aztertzen aritu gara eta hortik Itsason zein ekintza diruz lagundu daitekeen definitzen hasi gara: web guneak eta irudi korporatiboa, ikerkuntza, euskara klaseak, unibertsitate ikastaroetako bekak edo herri ekimenak (Korrika, Euskaraldia,...)	- Aztertu gaur egungo Udal legeak dioena - Lanketarekin jarraitu
	Azaroaren 25a	A25ean (Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna) zer egin aztertzen aritu gara: adierazpen instituzionala irakurri, watsappez bidali, puntu lila agerian jarri, solasaldiren bat egin,...	Sozio-kultural batzordean lanketarekin jarraitu



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena 2019/11/13 Hurrengo saioa: (2019/11/27)	Mahaiak eta eserlekuak	S Lorentzoko eta Alegiako presan mahaiak jarri, baita eserlekuak ere, azpian hormigoia botaz, datorren asteartean.	
	Ibilbideetako seinaleak eta baserri izenak	Iritsi dira eta posible bada udaberriko auzolana baino lehenago kokatzen joan gaitzke.	
	Ostatuko tximiniko sutea	Barandiaran enpresari aurrekontua eskatu zaio eta Seguru-etxeak onartu duenez lehenbailehen berritzeko eskatuko zaie.	
	Udaletxeko ganbara eta teilatua	Teknaliak teiltua osatzen duten egur egituraren azterketa sanitarioa amaitu du eta txostena aztertu da: aldatu beharrekoak 10 kapiro izango dira. Proiektuaren inguruan dauden zalantza batzuk argitzeko, hurrengo bilerara arkitektoa deituko da.	Udaletxeko sabaikoa daukagunean behin-betiko proiektua eta aurrekontua zehaztuko ditu arkitektoak